

2019. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2018ko urriaren 23an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2018/12/14. 240. zk.

UDALTZAINGOAREN ZERBITZU BEREZIEN TASEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua - OINARRIA ETA IZAERIA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek Udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasak eskatuko dauz.

2. artikulua - EGITE EZARGARRIA

Tasaren egite ezargarria, hau da ordainarazpenaren gaiak dira Udaltzaingoak emoten dauzan zerbitzu berezi honeek:

- 1) Garraio astunetan gidatu, zaindu eta laguntzea
- 2) Zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzea
- 3) Arlo zibileko gaien egiztapena eta polizia txostena egitea
- 4) Zerbitzua behar daben bestelako jarduerak batzuk

3. artikulua - SUBJEKTU PASIBOAK

Ordenantza honetan arauturiko Udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasen subjektu pasiboak, honako honeek dira: pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, bai eta Bizkaiko Tributu Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluan aipatutako erakundeak ere, ordenantza honetan araututako udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badabaz, eta jarduera edo zerbitzu horreen onuradun edo eraginpekoak badira.

4. artikulua- TRIBUTU KUOTA

Ordenantza honetan araututako zerbitzuak emoteagatik ordaindu beharreko kuotak honela finkatuta dagoz:

	2019 (€)
1. Garraio astunetan gidatu, zaindu eta laguntzea, zerbitzu bakotzeko	131,35
2. Zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzea, zerbitzu bakotzeko	39,41
3. Interesdunak diran partikularren eskariz, afera zibiletan egiztapenak egin eta polizia-txostenak igortzea:	
3.1 Udaltzaingoaren esku hartze edota egiztapenaren polizia-txostenaren kopia emotea	65,67
3.2 Trafiko istripuan Udaltzaingoaren esku hartze edota egiztapenaren polizia-txostenaren kopia emotea	131,35
3.3 Trafiko istripuagaitik Udaltzaingoak egindako atestatuaren kopia emotea	262,69
4. Ibilgailuen hondakin solido legezko tramitazioa	78,81

5- Udaltzaingoak herritarren segurtasun edota zaintza zerbitzuetako jardunean hirugarren batzuen ondasunen kalteetaz ohartuta egiten dauzan txostenak emotea, agiri eskatzailea kaltetua bera ez danean	65,67
6- Hirugarren batzuk udal ondasunei egindako kalteen ondorioz Udaltzaingoak egindako egiaztapena (OK espedientea igiritzean)	78,82

5. artikulua - SORTZAPENA

1-Tasea ordaindu beharra tributu egitatea dakarren Udaltzaingoaren jarduera hasten danean sortuko da. Horretarako, edozelan be, jarduera hasi egin dala ulertuko da subjektu pasiboak eskabidea edo beste agiriren bat aurkezten dauen egunean.

2.-Tasea esandako edozein modutan sortuta, zenbatekoa ordaindu beharko da. Eskatzaileak uko egiteak edo gaxterexatek ez dau ekarriko ordaindutakoa itzultzea ez egindako kitapena balio barik iztea.

6. artikulua – KUDEAKETA ETA KITAPENAK

1- Ordenantza honetan aurreikusitako zerbitzuak emoteko eskaria espresuki aurkeztu beharko dau interesdunak berh@z bulegoko Erregistro Orokorrean.

2- Udaltzaingoak garraio astunei lotutako zerbitzua emon dauanaren barri Errenta Sailari emonda, honek tasaren kitapen zuzena egingo dau 1. epigrafea aplikatuta.

3- Udaltzaingoak zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzeari lotutako zerbitzua emon dauanaren barri Errenta Sailari emonda, honek tasaren kitapen zuzena egingo dau 2. epigrafea aplikatuta.

4- Interesdunak diran partikularren eskariz Udaltzaingoak egindako afera zibileko polizia-txostenen kopiak eskuratzeari jagokozan 3.1, 3.2 eta 3.3 epigrafeetako kuotak aurretiaz, eskariagaz batera, ordaindu beharko dira autolikidazinoa eginda berh@z bulegoan. Ordaindu barik ez da emongo txostenaren kopiarik.

5- Ibilgailua hondakin solido bihurtzearen erabakia hartzen danean Errenta sailak tasaren kitapen zuzena egingo dau 4. epigrafea aplikatuta.

7- Emondako zerbitzuarentzat aplikagarria dan epigrafeari buruz zalantzarik egon ezkeru, Udaltzaingoaren Buruzagitzaren irizpidea izango da nagusi.

8- Autolikidazino kasuetan epigrafe okerra aplikatu dala egiaztatzen bada, Errenta Sailak epigrafe egokiagaz behin-betiko kitapena egingo dau autolikidazinoz ordaindutakoa haren kontura erregistratuta.

9- Ordenantza honetan bere begiz xedatuta ez dagona *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza* xedatutakoaren menpe egongo da.

10 - Udal ondasunei egindako kalteen espedientea igiritzean Errenta sailak tasaren kitapen zuzena egingo dau 6. epigrafea aplikatuta.

AZKEN XEDAPENAK

Onarpena: Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2013ko.....ean egindako Osoko Bilkuran.

Indarrean sartzea: 2014ko urtarrilaren 1an

Argitaratua: BAO.....